



**NAFARROAKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN SISTEMAREN MENDEKO LIBURUTEGI PUBLIKOEK
ZERBITZU EMATEKO JARRAIBIDEAK**

1. JARRAIBIDE OROKORRAK

2. LIBURUTEGIKO TXARTELA

3. LIBURUTEGIKO ERABILTZAILEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

3.1. ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK

3.2. ERABILTZAILEEN BETEBEHARRAK

4. LIBURUTEGIKO ZERBITZUAK

4.1. ZERBITZUAK ERABILTZEKO ARAU OROKORRAK

4.2. ARETOAN BERTAN IRAKURRI ETA KONTSULTATZEKO ZERBITZUA

4.2.1. Hemeroteka

4.2.2. Ikus-entzunezkoak

4.2.3. Funts zaharra

4.2.4. Talde-lanerako aretoak

4.2.5. Liburutegiko beste areto batzuk

4.3. ARGIBIDE ZERBITZUA

4.4. MAILEGU ZERBITZUA

4.4.1. Alderdi orokorrak

4.4.2. Maileguaren salbuespenak

4.4.3. Mailegurako baldintzak

Mailegu pertsonala

Mailegu kolektiboa

Liburutegien arteko mailegua

4.4.4. Berritzeak eta erreserbak

Maileguan emandako liburuen epea berritzea

Maileguan emandako liburuak erreserbatzea

4.5. INTERNET ZERBITZUA

4.5.1. Zerbitzuaren baldintzak

4.6. ERREPROGRAFIA ZERBITZUA

4.7. BESTE ZERBITZU BATZUK

4.7.1. Kultur jarduerak

4.7.2. Irakurleen kluba

4.7.3. Erabiltzaileentzako prestakuntza

5. JARRAIBIDEAK ONARTZEA

1. JARRAIBIDE OROKORRAK

Testu honen bidez, Nafarroako Liburutegi Publikoen Sistemaren mendeko liburutegi publikoen zerbitzu-ematea arautzen da, Nafarroako Liburutegien Sistema arautzen duen azaroaren 19ko 32/2002 Foru Legeak ezarritakoari jarraikiz.

Lege horren 11. artikulua haxe dio: "Liburutegi publikoak dira funts orokorra izan, kultura, hezkuntza, josteta eta gizarte mailako informazio zerbitzuak –baita kontsulta eta maileguak ere– eskaini, eta herritar guztien eskura daudenak, adina, arraza, sexua, erlijioa, nazionalitatea edo gizarte maila kontuan hartu gabe.

Liburutegi publikoak zerbitzu bereziak eskainiko dizkie helduei eta haurrei. Era berean, kontuan hartuko du Nafarroako Foru Komunitateko errealitate soziolinguistikoa, eta zerbitzuak euskaraz eta gaztelaniaz emanen ditu, Euskararen Legeak, abenduaren 15eko 18/1986 Legeak alegia, araututakoarekin bat".

Liburutegi publikoetan sartzea

Liburutegi publikoetan edonor sar daiteke eta ez da nortasuna frogatu behar, berariaz zehaztutako zerbitzuak erabiltzeko izan ezik; halakoetan, liburutegiak dagokion erabiltzaile-txartela egingen du.

Oro har, ordena eta zerbitzuen erabilera egokia bermatzeko emandako jarraibideetan jasotzen diren xedapenen bat betetzen ez duten erabiltzaileek zerbitzuak aldi batez erabiltzeko eskubidea galtzen ahalko dute eta/edo zentrotik kanporatzen ahalko dituzte.

Ordutegiak

Oro har, eta indarreko araudian ezarritakoari jarraikiz, liburutegiko ordutegia foru edo toki administrazioak erabakiko du, bere organo eskudunen bidez. Ordutegia eta jaiegunen urteko egutegia liburutegiko ageriko lekuetan paratuko dira.

Zerbitzuak

Liburutegiak ematen dituen zerbitzuak azaroaren 19ko 32/2002 Foru Legearen 12. artikuluan jasotzen dira:

"Hauexek dira liburutegi zerbitzu oinarritzkoak:

a) Monografiak eta argitalpen seriatuen, dokumentu elektroniko, ikus-entzunezko eta multimedien irakurketa eta kontsulta, aretoan.

b) Informazioa eta erreferentzia, orokorrak eta Europar Batasunekoak, eskura izatea.

c) Liburuen eta bestelako materialen banakako mailegua.

d) Liburutegien arteko mailegua.

e) Internet eta lineako informazio zerbitzuak eskura izatea.

Gutxieneko zerbitzuak hauexek dira:

a) Erreferentziako lan nagusien kontsulta.

b) Liburuen banakako mailegua.

Nafarroako liburutegi publiko guztiek eskainiko dituzte dohainik oinarrizko zerbitzuak. Halere, liburutegien arteko mailegu zerbitzua eta zerbitzu informatikoak erabiltzeagatik, horien kostua ordaintzea eskatzen ahalko zaie erabiltzaileei".

2. LIBURUTEGIKO TXARTELA

Txartela aurkeztu behar da bai mailegu- zein Internet-zerbitzuak erabiltzeko, bai materialak ikusi edo entzuteko, bai liburutegiko langileek bidezkotzat jotzen duten edozertarako. Txartelak Nafarroako Liburutegi Publiko guztietarako balio du eta edozein herritarrek eska dezake, baita erabili ere.

Txartela doakoa, pertsonala eta besterenezina da: ezin zaio beste inori utzi liburutegiko zerbitzuak erabiltzeko. Dena dela, bada salbuespenik: gurasoek haurrentzako materiala, ez helduentzakoak, har dezakete beren seme-alabentzat.

Txartelaren balioa mugagabea izanen da. Pertsona batek ez badu bere mailegu-txartela 5 urtean erabiltzen, baja emanen zaio automatikoki.

Erabiltzaileek Nafarroako edozein liburutegi publikotan **eskatzen ahal dute txartela**, bertara joanez. Txartela eskuratzeko eskabidea bete behar da. Bertan datu pertsonalak idatzi (izen-deiturak, NANA, helbidea, jaioteguna, eta abar); NANA/AIZ edo pasaporteak erakutsi, eta txartel neurriko bi argazki, berriki ateratakoak, aurkeztu behar dira.

Aurkeztutako identifikazio-agirian jasotzen den helbidea erabiltzaileak emandakoarekin bat ez badator, herriarekiko lotura frogatzen duen agiriren bat eskatzen ahalko da (lana, ikasketak, errolda, ordainagiriak, etab.).

14 urtez azpitikoen eskabidea aitak, amak edo tutoreak sinatu beharko du. Horretaz gainera, adingabeak NANA badu, hori ere aurkeztu beharko du.

Txartela Internet bidez eskatzen ahalko da, halaber.

Irakurle-txartelean jasotzen diren datuak aldatuz gero (helbidea, telefono-zenbakia, etab.), erabiltzaileak horren berri eman beharko dio liburutegiari, liburutegien arteko maileguaren bidez erreserbatutako edo eskatutako dokumentuei buruzko jakinarazpenak, mailegatutako dokumentuen gaineko erreklamazioak, eta abar egin ahal izateko; bestela, erabiltzailea izanen da gerta daitezkeen kalteen erantzule bakarra.

Erabiltzaile-txartela eskatzeak berarekin dakar liburutegiaren funtzionamendua arautzen duten arauak eta jarraibide hauek onartu beharra.

Txartela galdu edo lapurtuz gero, horren berri eman beharko zaio berehala liburutegiari, haren erabilera okerrak saiheste aldera. Liburutegiari galeraren berri eman arte, erabiltzaileak erantzun beharko du txartelaren bidez egindako eragiketengatik. Txartel berria edo kopia egiteko, indarreko tarifak aplikatuko dira; galera frogatzen duen lapurreta-salaketa aurkezten bada, ordea, ez da ordaindu beharrik izanen.

Txartela erabiliaren erabiliaz hondatzen bada, dohainik emanen da berria. Dagokion tarifa aplikatuko da arduragabekeria dela-eta txartelaren kopia egin behar bada.



Mailegu kolektiboa erabili nahi duten erakunde publiko edo pribatuek (ikastetxeak, institutuak, ospitaleak, elkarteak, toki-entitateak, kolektiboak, etab.) maileguaren ardura hartuko duen pertsona ofizialki izendatu beharko dute, idazki bidez. Izendapena erakundeko arduradunak sinatu beharko du (zuzendaria, burua, kudeatzailea, etab.). Erabiltzaile kolektiboentzako txartelak urtebeterako edo ikasturte baterako balioko du; epe hori iraganda, hura berritu edo iraungiko da.

Erabiltzaile-txartela eskuratzeko lagatako datuak Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren apirilaren 25eko 122/2002 Foru Aginduak (70. NAO, ekainaren 10ekoa) arautu eta babesten ditu; agindu horren bidez, "Nafarroako Liburutegi Publikoetako bazkideen erregistroa" izenarekin fitxategi informatizatu bat sortu zen, eta ondotik bi foru agindu hauek aldatu zuten hura: Hezkuntza eta Kulturako kontseilariaren urtarilaren 13ko 3/2003 Foru Agindua (54. NAO, apirilaren 30ekoa) eta Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren urtarilaren 27ko 4/2010 Foru Agindua.

Erabiltzaileek datuak sartu, zuzendu eta ezeztatzeko eskubideak erabiltzen ahalko dituzte, betiere indarreko legerian ezarritakoari jarraikiz, idazkia aurkeztuz Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuko Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiko Liburutegi Zerbitzuan.

3. LIBURUTEGIKO ERABILTZAILEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

3.1. ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK

Liburutegiko erabiltzaileek eskubide hauek dituzte:

- Erabiltzea liburutegiko gutxieneko zerbitzuak, bai eta liburutegiko instalazio eta ekipamendu egokiak, eta horiek erabiltzeko beharrezko aholkularitza eta laguntza ere.
- Informazioa eskura izatea, eta liburutegiko funtsa, informazio-iturriak eta zerbitzuak erabiltzeko orientabideak jasotzea.
- Liburutegiko eremu eta zerbitzuez baliatzea.
- Zerbitzuak libreki eta doan izatea. Salbuespen dira erabilera orokorretik kanpo dauden eta kostu berezia eskatzen duten zerbitzuak, hala nola honako hauek: erreprografia, grabazioak, digitalizazioak, liburutegien arteko mailegua, ordaindu beharreko datu-baseetan sartzea, eta doakoak ez diren beste batzuk; halakoetan, dagokion kostua ordaintzeko eskatzen ahalko da, indarreko tarifa publikoen araberakoa izanen dena.
- Funtsak indarreko araudiari jarraikiz kontsultatu eta kopiatzea.
- Liburutegiko funtsaren katalogoa kontsultatzea.
- Nafarroako Liburutegi Publikoen Sistemako funtsen katalogo informatizatuak kontsultatzea.
- Egungo gaiak ikuspegi guztietatik aztertzen dituzten materialak eta informazioa eskura izatea.
- Maileguan eskatzea liburutegiko edo beste liburutegi-zentro batzuetako dokumentuak, salbu eta aretoan bertan baizik kontsulta ezin daitezkeenak.
- Fitxa pertsonala liburutegiko katalogo informatizatuaren bidez (OPAC) eskuratu ahal izatea.
- Programatutako kultur jardueretan parte-hartzea.
- Liburutegiaren funtzionamenduari buruz egoki deritzeten iradokizun, kontsulta eta erreklamazioak (IKE) aurkeztea.
- Liburutegirako funts-erosketa iradokitzea.
- Liburutegiko langile guztien begirunea eta arreta izatea. Ez da erabiltzailerik baztertuko adina, arraza, hizkuntza, sexua, erlijioa, nazionalitatea edo gizarte klasea dela-kausa.

Liburutegi guztiek erabiltzaileen eskubide eta betebeharrei buruzko informazio-kartela paratu beharko dute ageriko lekuren batean.



3.2. ERABILTZAILEEN BETEBEHARRAK

Liburutegiko erabiltzaileek betebeharrak hauek dituzte:

- Irakurtzeko, kontsultak egiteko eta ikertzeko ingurune egokia mantentzen laguntzea. Isilik egotea. Isilean ez diren erabiltzaileei liburutegitik joateko eskatzen ahalko zaie.
- Liburutegiko instalazioak, ekipamenduak eta dokumentu-funtsa zaintzea. Zerbait galdu edo kaltetzen badute, berritu beharko dute.
- Liburutegiko materialak erabili eta kopiatzeko arauak men egitea, jabetza intelektualari buruzko indarreko legeriari jarraikiz.
- Ordena mantentzea eta gainerako erabiltzaileenganako eta liburutegiko langileenganako begirunea izatea. Debeku da beste erabiltzaileen edo langileen aurkako indarkeria erabiltzea edo haiek jazartzea.
- Liburutegiko zerbitzuen erabilerari buruzko arau guztiak betetzea eta bertako langileen ohar eta aginduak betetzea.
- 14 urtez azpitikoez arduratzea; izan ere, pertsona heldu batekin joan beharko dute.
- Maileguan hartutako materialak zeuden bezalaxe itzultzea.
- Liburutegiak dohainik ematen ez dituen zerbitzuak ordaintzea, alegia, erabilera orokorretik kanpo dauden eta kostu berezia eskatzen dutenak, hala nola honako hauek: erreprografia, grabazioak, digitalizazioak, liburutegien arteko mailegua eta beste batzuk; halakoetan, dagokion kostua ordaintzeko eskatzen ahalko da, indarreko tarifa publikoen arabera izan dena.
- Ez erabiltzea ez zerbitzurik ez prestaziorik, horiek erabiltzeko baimenik izan gabe.
- Informatika-ekipamenduen konfigurazioa errespetatzea.
- Liburutegiaren behar bezalako funtzionamenduan laguntzea, dagokion langileari pertsonen edo ondasunen segurtasuna arriskuan jartzen duen edozein ezbehar edo gorabeheraren berri emanez. Debeku da liburutegiko instalazioetara armak edo antzeko objektuak sartzea, salbu eta segurtasun-zerbitzu publikokoek edo pribatukoek eramaten dituztenak.
- Norberaren gauzak zaintzea. Liburutegiak ez du galeren edo lapurreten gaineko erantzukizunik hartuko.
- Erabiltzaile-izaera frogatzea liburutegiko langileen aurrean.
- Liburutegiko zerbitzuak hobetzen laguntzea.
- Jarraibideotan zehaztutako gainerakoak.

Debeku da liburutegiko instalazioetan honako hauetakoren bat egitea:

- Erretzea edo sua piztea.
- Liburutegiko edo beste erabiltzaile baten jabetzako ondasunak alferrik galdu, suntsitu, ebatsi edo ostea.
- Lagun egiteko animaliekin (itsu-txakurrak sar daitezke) edo jolas-ibilgailuekin (bizikletak, monopatinak, patineteak, etab.) sartzea. Ume-kotxeak berariaz horretarako prestatutako eremuetan utziko dira.
- Erabiltzaileei eragozpenak sortzen ahal dizkieten soinudun gailuak erabiltzea (sakelako telefonoak, erloju-alarmak, norberaren erreproduzigailuak, etab.).
- Txistu egitea, abestea edo oihu egitea.
- Norberaren gailuak instalazio elektrikoan entxufatzea, salbu eta ordenagailu eramangarrietarako adierazitako lekuetan.
- Jatea edo edatea. Ur-botilak baizik ezin izanen dira eraman, baina ezin izanen dira mahai gainean utzi.
- Pertsonako eserleku bat baino gehiago okupatzea, edo mahaiak zein bestelako tokiak 20 minutuz goiti gordetzea.
- Altxariak lekuz aldatzea edo haien gainean hankak jartzea.



- Zikintzea.
- Nahita eragozte, zarata egitea, elkarri objektuak botatzea edo bultzaka egitea.
- Mostradoreen gainetik botatzea objektuak hartzeko.
- Komunak erabiltzea norberaren burua garbitzeko, bizarra egiteko edo arropaz aldatzeko. Haurren fardelak aldatzeko, baina, zilegi da horiek erabiltzea. Amek titia ematen ahalko diete seme-alabei liburutegiko eraikinean, liburutegiko langileei horretarako lekurik egokiena zein den galdetu ondotik.
- Beste erabiltzaileen intimitatea eragozte.
- Hizkera zakarra edo arrazista erabiltzea, mehatxuak egitea eta irainak esatea.
- Lo egitea.
- Liburutegian alkoholaren edo drogen eraginpean egotea.
- Larrialdiko ateak irekitzea, justifikatutako alarma-kasuan izan ezik, edo lan-eremuetan, biltegian edo jendeari oro har debekatutako eremuetan sartzea.
- Propaganda uztea, baimenik eskatu gabe.
- Hauteskunde-kanpainetan dirua, botoa edo sinadurak eskatzea, baimenik izan gabe.
- Loteriak saltzea, apustuak egitea edo salmenta ibiltaria gauzatzea.
- Higienarik eza, liburutegiko gainerako erabiltzaileen kexa orokorrak daudenean edo haiei deseroso egotea eragiten dietenean.
- Oro har, liburutegiko bizikidetzatza oztopatzen duen beste edozein jokabide edo jarrera.

4. LIBURUTEGIKO ZERBITZUAK

4. 1. ZERBITZUAK ERABILTZEKO ARAU OROKORRAK

Oro har, liburutegi publikoek honako eremu hauek izanen dituzte: aretoan bertan irakurri eta kontsultatzeko eremua, haurren eremua, hemeroteka-eremua, eta bulegotika- eta Internet-eremua.

Aulkietan ezin da pertsona bat baino gehiago eseri. Aulkiak ezin dira lekuz aldatu.

Dokumentuak kontsultatu ondotik, zehaztutako lekuetan utziko dira, langileek beren tokian utz ditzaten. Hiztegi eta entziklopediak beren apalategian utziko dira zuzenean.

Azterketa-garaian ikasteko lekuen eskari handia dela-eta, liburutegiak mahai batzuk gordetzen ahalko ditu erabilera zehatzetarako, hala nola honako hauek kontsultatzeko: prentsa, liburutegiko dokumentu bereziak, etab.

4.2. ARETOAN BERTAN IRAKURRI ETA KONTSULTATZEKO ZERBITZUA

Aretoan bertan irakurri eta kontsultatzeko mahaietan ezin da liburutegiko, karpetarik edo norberaren objekturik utzi beste pertsona bati lekua gordetzeko. Objektuak utzi eta 20 minuten buruan, mahaitik kentzen ahalko dituzte; jabeek liburutegiko langileen mostradoreetan eskatzen ahalko zaizkie.

Helduen aretoan ezin da talde-lanik egin, ezta esku-lanik ere (kartulina, kola, guraizeak, etab. erabilia).

Helduen aretoan, erabiltzaile asko denean, liburutegiko materialak eta zerbitzuak erabiltzen dituztenek izanen dute lehentasuna.

14 urtetik beheitiko adingabeak ezin dira helduentzako eremuetan sartu liburutegiko arduradunen baimenik gabe.

Haurren aretoan 14 urtetik beheitiko haur eta gazteak sar daitezke, bai eta adingabeei laguntzen dieten helduak ere. Liburutegiko langileek haurrak lekuz aldatzen ahal dituzte, aretoko ordena mantentzeko.

4.2.1. Hemeroteka

Aldizkariak eta egunkariak hemerrotekan baizik ezin dira irakurri. Dena dela, material horiek etxera eramateko mailegatzen ahalko dira, hala erabakitzen duten liburutegietan.

4.2.2. Ikus-entzunezkoak

Liburutegian dokumentuak entzun eta ikusteko ekipamendurik badago, erabiltzaileak txartela aurkeztu beharko du haiek erabiltzeko.

Ikus-entzunezkoen aretoan dokumentuak banaka entzun edo ikusi behar dira; haurren aretoan bi pertsona egoten ahal dira, gehienez, aldi berean. Ezin dira liburutegiko funtsekoak ez diren ikus-entzunezkoak kontsultatu.

Ikus-entzunezko saio bakar bat egiten ahalko da pertsona eta egun bakoitzeko.

Musika entzuteko eta filmak ikusteko zerbitzua liburutegia itxi baino 30 minutu lehenago bukatzen da.

4.2.3. Funts zaharra

Funts zaharra 1958 baino lehenagoko liburuek osatzen dute (urte horretan hasi zen Lege Gordailua). Kontserbazio berezia behar duten funtsak dira; irakurketa-aretoan baizik ezin dira kontsultatu, liburutegiko langileei eskatu ondotik. Dena dela, funts horien kontsultarako ezarritako arau bereziak bete beharko dira.

4.2.4. Talde-lanerako aretoak

Areto horiek talde-lana egiteko erabil daitezke, liburutegiko ordenari eta bizikidetzako arau orokorreari jarraikiz. Gatazkarik bada, aretoak hustuko dira. Aretoen erabiltzaile kopurua liburutegiko langileek finkatuko dute.

4.2.5. Liburutegiko beste areto batzuk

Liburutegiko aretoak kultura-, hezkuntza- eta informazio-jarduerak gauzatzeko erabiliko dira soilik.

Jarduera baterako erabiliko den aretoa gutxienez ere 7 egun lehenagotik erreserbatu beharko da. Erreserba baliogabetu izanez gero, lehenbailehen jakinarazi beharko da.

Liburutegiko aretoak pertsona fisiko bati lagako zaizkio, eta haren erantzukizuna izanen da honako konpromiso hauek betetzea: altzariak zeuden tokian uztea; aretoa garbi uztea; apurtu edo hondatzen diren ondasunak berritu edo, kasua bada, konpontzea; ordena gordetzea; liburutegiko jarduerak ez oztopatzea.

4.3. ARGIBIDE ZERBITZUA

Telefono edo Internet bidezko argibide- eta kontsulta-zerbitzua liburutegia zabalik den orduetan baizik ez da emanen.

Berehala erantzunen dira informazio orokorreko galdera guztiak. Informazio bibliografikoko eta erreferentziazko galderei, unean-unean erantzuteko modukoak ez badira, 48 orduko epean emanen zaie erantzuna. Argibide-zerbitzura zuzendutako kontsulta guztiak isilpekoak dira.

4. 4. MAILEGU ZERBITZUA

4.4.1. Gai orokorrak

Mailegu-zerbitzuaren xedea da erabiltzaile bati doan eta aldi baterako lagatzea liburutegiko dokumentuak (liburuak, bideoak, DVDak, CDak, CD-ROMak, etab.). Dokumentuak eraman nahi dituzten pertsonak mailegu-zerbitzutik pasa beharko dute; hala egin ezean, ezarritako zehapenak aplikatzen ahalko zaizkie.

Zerbitzuaz baliatzeko beharrezkoa da liburutegiko txartela aurkeztea.

Oro har, liburuak mailegatzeko epea 21 egun naturalekoa da, eta 7 egun naturalekoa liburu ez diren dokumentuena (aldizkariak eta ikus-entzunezko materialak). Liburutegiak alda ditzake eskaera handiko dokumentuak mailegatzeko baldintzak (oposizioak prestatzeko gidaliburuak, bidaia-gida berriak, eskolako lanak egiteko materiala, etab.).

Erabiltzaile batek bere izenean mailegatutako dokumentuak beste pertsona edo entitate bati laga eta azken horrek galtzen baditu, dokumentuak liburutegitik atera zituen pertsona izanen da erantzule bakarra.

Dokumentuak zer liburutegitan mailegatzen diren, hartan itzuliko dira beti. Dokumentuak mailegatu eta itzultzeko maileguko mostradorean dauden langileengana jo behar da, eta liburutegiko langileek beharrezko egiaztapenak oro egin arte itxoin (bideoak edo DVDak beren kutxetan ote dauden, berrikuspen fisikoa, etab.). Automaileguko zerbitzua edo itzulketa-ontzia, halakorik bada, araudi berekiari jarraikiz arautuko da.

Mailegu-zerbitzuaren ordutegia liburutegia itxi baino 15 minutu lehenago amaitzen ahalko da.

4.4.2. Maileguaren salbuespenak

Liburutegiko funtsa osatzen duten material guztiak mailega daitezke, honako hauek izan ezik: erreferentzia-lanak (entziklopediak, hiztegiak, atlasak, etab.); lege-bildumen azken edizioak; tokiko bildumaren ale bakarrak; funts zaharra; erreserba-funtsa; aldizkarien azken aleak; prentsa-txostenak; liburutegiko arduradunaren ustez mailegu-zerbitzutik at utzi beharreko bestelako dokumentuak.

4.4.3. Mailegurako baldintzak

Erabiltzaile-txartela duten pertsona eta erakundeentzat da mailegua. Mailegu mota hauek daude:

- **Mailegu pertsonala**, erabiltzaileentzat, oro har.
- **Mailegu kolektiboa**, erakunde publiko eta pribatuentzat, hala nola eskola, institutu, ospitale, elkarte, tokiko erakunde, talde, eta abarrentzat.
- **Liburutegien arteko mailegua**, liburutegi batean eskatu eta beste batean dauden dokumentuak uzten direnean.



Mailegu pertsonala

Erabiltzaile bakoitzak gehienez ere 7 dokumentu izaten ahal ditu maileguan aldi berean, Nafarroako Liburutegi Publikoen Sistema osoa kontuan hartuta.

Liburutegi guztietan honela utziko dira maileguan dokumentuak:

- 3 liburu, 21 egunerako; 2 aldiz ere berritzen ahalko da mailegua aipatu epealdirako, non ez dituen beste erabiltzaile batek erreserbatzen.
- 2 aldizkari, 7 egunerako; 2 aldiz ere berritzen ahalko da mailegua aipatu epealdirako, non ez dituen beste erabiltzaile batek erreserbatzen.
- 4 bideo, CD-ROM, DVD edo CD, 7 egunerako.

Haur erabiltzaileak: beren txartelaren bidez, haurren eremuko mailegu-funtseko dokumentuak baizik ezin dira mailegatu.

Erabiltzaile helduak: beren txartelaren bidez, liburutegiko eremu guztietako mailegu-funtseko dokumentuak mailega daitezke.

Dokumentuak itzultzeko epeak betetzen ez badira, zehapena jarriko da: egun bat mailegu-txartela erabili gabe, atzeratutako egun eta dokumentu bakoitzeko. Dokumenturen bat galdu edo hondatuz gero, berria ekarri beharko da. Hura berritu ezin bada, agortuta edo deskatalogatua dagoelako, erabiltzaileak dagokion zenbatekoa ordaindu beharko du, merkatuko indarreko prezioa, alegia.

Mailegu kolektiboa

Mailegu pertsonala erabiltzeko zailtasunak dituzten erabiltzaileez osatutako entitateentzako zerbitzua da, edo haien jardueretarako liburutegiko dokumentu sorta bat behar duten entitateentzat.

Erabiltzaileak: zerbitzuko erabiltzaile izan daitezke Nafarroako entitate publikoak eta elkarte zein kolektibo soziokulturalak (ikastetxeak; institutuak; ospitaleak; harrera-zentroak; adinekoentzako, gazteentzako, emakumeentzako zentroak; ikasketa-zentroak; eta abar), legez eratuak eta irabazi-asmorik gabeak, eta jarraibide hauekin bat eskatzen badute.

Txartelaren eskaera: entitateko zuzendariak edo legezko ordezkariak eskabide normalizatua beteko du, honako datu hauek adierazita:

- Entitate eskatzailearen izena eta IFK.
- Entitatearen egoitzaren datuak (helbidea, telefonoa, faxa).
- Entitateko zuzendariaren edo arduradunaren izen-abizenak eta NANA.
- Dokumentuak maileguan eskatu eta hartzeko baimena duten pertsonen izen-abizenak eta NANA (gehienez ere bi pertsona).

Eskabidea entitateko zuzendariak edo arduradunak sinatua egonen da, eta entitateko zigilua eramanen du. Eskabidea sinatzeak berarekin dakar Nafarroako Liburutegi Publikoen Sistemaren arauak eta jarraibide hauek onartzea.

Txartel kolektiboak urtebeterako edo ikasturte baterako balioko du; epe hori iraganda, hura berrituko da, hala badagokio.

Argitalpen mota: liburutegiko edozein mailegu-funtsetako obrak eskatzen ahalko dira, oro har. Dena dela, liburutegiak zenbait dokumentu maileguan ez uzteko ahalmena du: nobedadeak, eskaera handiko obrak, erreserbatutakoak, eta abar. Maileguan ez uzteko arrazoiren bat izan beharko du beti.

Mailegurako baldintzak: erakunde bakoitzak 50 dokumentu izaten ahal ditu maileguan, aldi berean, Nafarroako Liburutegi Publiko guztien multzotik. Liburutegiak kopurua mugatzen ahalko du.

Liburutegi guztietan honela utziko dira maileguan dokumentuak:

- 50 liburu eta aldizkari, 30 egunerako; behin bakarrik berritzen ahal da beste epealdi baterako, itzultzeko eguna baino lehen eta beste erabiltzaile batek erreserbatu ez baditu.
- 10 bideo, CD-ROM, DVD edo CD, 15 egunerako.

Liburutegi bakoitzak zehaztuko du mailegu kolektiboan hilero egin daitekeen gehieneko eskaera kopurua.

Aleen eskaerak: ale kopurua edo dokumentu mota zehazten duen eskaerak arrazoitua beharko du izan, eta hartan adieraziko dira zein jarduera egin nahi den, zein helburu lortu nahi diren eta aurreikusitako iraupena zein den.

Obra guztietarako eskaera bakarra eginen da, bateratua, eta gutxienez ere 2 egun lehenago egin beharko da. Erabiltzaile bakoitzak 2 eskaera egiten ahalko ditu, gehienez, hilabete natural bakoitzeko (ezin izanen da beste sortarik eskuratu, hilabete hori iragan arte).

Salbuespen kasuren batean, txartelaren arduradunak unean bertan mailegatzen ahalko ditu obrak, aldez aurretik eskatu beharrik izan gabe.

Txartelaren arduradunak bertatik bertara egiten ahalko du eskaera liburutegiko mailegu-zerbitzuetan beraietan, bai eta helbide elektronikoaren bidez ere.

Eskaeren igorketa eta itzulketa: itzulketak bateratua beharko du izan, eta ezin izanen da beste eskaerarik egin, aurreko sorta osorik itzuli arte.

Sortak liburutegian bertan jasotzen eta itzultzen ahalko dira.

Entitate eskatzailea sorta mailegatuen erantzule izanen da txartelaren arduradunak mailegua egiten duen unetik beretik. Hortaz, aleren bat galdu edo larriki kaltetuz gero, erabilera desegokiaren ondorioz, entitate eskatzaileak ahal bezain laster berrituko du. Ale horrek jatorrizkoa eta berria beharko du izan. Hura berritu ezin bada, agortuta edo deskatalogatua dagoelako, erabiltzaileak dagokion zenbatekoa ordaindu beharko du, merkatuko indarreko prezioa, alegia.

Epeak edo bestelako arauak behin eta berriz ez-betetzeak mailegua aldi baterako edo betiko etetea ekartzen ahalko du.

Liburutegien arteko mailegua

Oinarrizko zerbitzua da, azaroaren 19ko 32/2002 Foru Legeari jarraikiz; eta, hartan ezartzen denez, liburutegi publikoek zerbitzu hori pagatzeko eskatzen ahalko diete erabiltzaileei.

Kopiak ateraz gero, igortze gastuekin batera ordainduko dira.



Zerbitzu honen bitartez, liburutegi batean eskatu eta beste batean dauden dokumentuak uzten ahal zaizkie maileguan erabiltzaileei. Liburutegia arduratzen da dokumentu horien kopiak edo jatorrizko aleak bilatzeaz eta maileguan uzteaz.

Liburutegiak eskaerak aztertuko ditu, eta horiek onartzen edo ukatzen dituen erabakiko. Ukatzuz gero, horretarako arrazoiak eman beharko ditu.

Zein diren dokumentuen ezaugarriak, liburutegian berean kontsultatzen ahal dira 10 egunez, edo etxera eraman; orduan, mailegu pertsonalaren arauak aplikatuko dira. Gehienez ere 3 dokumentu eskatzen ahalko dira.

Eskatzaileak liburutegien arteko mailegu-eskaera baliogabetu nahi badu, ahal bezain laster jakinaraziko dio liburutegiari; halakoetan, eskatzaileak ordura arte sortutako gastuak hartuko ditu bere gain.

Liburutegi eskatzailea ez da liburutegi igortzaileak bidalitako kopien kalitatearen erantzule; hala ere, horrek ez du zerbitzua pagatzetik salbuesten.

4.4.4. Berritzeak eta erreserbak

Maileguan emandako liburu edo aldizkarien epea berritzea

Liburuen mailegualdia luza daiteke, betiere beste erabiltzaile batek ez baditu erreserbatu eta berritzeko eskaera maileguaren epea amaitu baino 5 egun lehenago egin bada. Liburu eta aldizkarien mailegualdiko epea bi aldiz berritzen ahal da.

Berritzeak telefonoz egiten ahalko dira, liburutegia zabalik den orduetan.

Maileguan emandako liburuak erreserbatzea

Aldi berean bi liburu eduki daitezke erreserbatutik, norbaitek mailegatuta baditu.

Eskatu nahi den dokumentua mailegatuta badago, erreserba liburutegian bertan egiten ahalko da, edo haren web orriaren bidez.

Erreserbatutako dokumentua itzuli bezain pronto, liburutegiak horren berri emanen dio erabiltzaileari, bai eta hura jasotzeko duen gehieneko epea adierazi ere. Erabiltzaileak dokumentua ezarritako epean jasotzen ez badu, hurrengo erabiltzaileak hartzen ahalko du.

Erabiltzaile batek dokumentuak epez kanpo baditu maileguan, ezin izanen du ez erreserbarik ez berritserik egin.

Erabiltzaileak erreserbatutako dokumentua zer liburutegitan dagoen, hara joan beharko du jasotzera.

Erabiltzaileak ez baditu erreserbatutako dokumentuak jasotzen, zehapena ezartzen ahalko zaio eta mailegu-zerbitzua hiru hilabeteen erabiltzetik baztertu. Jokabide hori errepikatzen bada, sei hilabete arteko zehapena ezartzen ahalko zaio.

4.5. INTERNET ZERBITZUA

Liburutegi publikoak, erabiltzaileei edozein arlotako datu eta ezagutzak emateko informazio-zentroa den heinean, Internet doan erabiltzeko aukera ematen du. Internetek tokiko, nazioko eta nazioarteko informazio baliotsu anitza eskaintzen du; horri esker, liburutegiko erabiltzaileek beren informazio-, prestakuntza- eta aisia-premiak asetzen ahal dituzte.

4.5.1. Zerbitzuaren baldintzak

Interneten sartzeko aukera ematen duten ordenagailuak informazioarekin, ezagutzarekin eta ikaskuntzarekin lotutako gaiak bilatzeko dira. Ezin izanen dira jolasteko, txatean jarduteko, eta abarrerako erabili.

Ordenagailu horiek erabili ahal izateko, beharrezkoa da liburutegiko txartelaren jabe izatea. Dena dela, kontsulta berezia bada, aski izanen da NANA/AIZ edo pasaportea aurkeztea.

Eskaera informazio-mostradorean egin beharko da, eta, Interneten sartzeko ordenagailuak libre egonen direla ziurtatzeko, erabiltzaileek aldez aurretik egiten ahalko dute erreserba liburutegian bertan, telefonoz edo on-line. Eskatzailea erreserbatutako ordua hasi eta 10 minuturen buruan agertzen ez bada, bere saiorako eskubidea galduko du.

PC librerik bada, erabiltzaile bakoitzak 30 minutu erreserbatzen ahalko ditu gutxienez egunero, eta 2 ordu gehienez astero. Saioak ordu-orduan bukatuko dira, hurrengo erabiltzaileak erreserbatutako orduan hasi ahal izateko.

Internet bidezko kontsultetan, pertsona bat baizik ezin da egon ordenagailu bakoitzean. Liburutegiak erabakiko du bi pertsonak batera erabiltzen ahal duten ordenagailu bera, beharrik izanez gero. Beste erabiltzaileen pribatutasuna errespetatuko da une oro. Liburutegiak ez du kontsultatutako orrien gaineko informaziorik gordetzen, baina egunero esleitutako txanden kontrola eramaten du.

Erabiltzaileak bere kontsulten emaitza inprimatzen ahalko du. Inprimaketa-kostua indarreko tarifen arabera izanen da.

Erabiltzaileak hitz eman beharko du Jabetza Intelektualari buruzko indarreko legeria une oro errespetatuko duela, eta Internet-zerbitzua modu egokian erabiliko, betiere liburutegi publikoaren jarduna arautzen duten oinarriak aintzat hartuta.

Interneten aurkitutako informazioaren bat desagokia, ez-oso, zaharkitua edo iraingarria izan daiteke norbaitentzat. Liburutegia ez da Interneten aurkitutako informazioaren erantzule, ez eta erabiltzaileek hartaz egiten duten erabilerarenaz ere. Liburutegiak iragazketa-programak erabiltzen ahalko ditu, behar bezalako erabilera bermatzeko. Edonola ere, liburutegiak saioak eteteko eskubidea du, baldin eta gizabide- eta duintasun-printzipioak urratzen badituzte, edo indarkeria, arrazakeria edo xenofobia defendatzen.

Erabiltzaileak ezin izanen du ez programarik instalatu ez konfigurazioa aldatu Interneteko erabilera publikoko tokietan.

Ez dira PCak itzali behar eta, funtzionamendu-arazorik sortzen bada, erabiltzaileek ez dute ekipamendua berrabiaraziko. Halakoetan, liburutegiko langileei horren berri emanen diete.



Liburutegiko langileek, Internet-zerbitzuaren erabilera desagokirik bada, saioak edozein unetan eteteko eskubidea izanen dute.

Ezin izanen dute Internet-zerbitzua erabili dokumentuak epez kanpo mailegatuak dituztenek edo liburutegiko zerbitzuren bat erabiltzetik baztertutakoek.

Liburutegiak ez du bere gain hartzen sarea erortzearen, deskonexioen, eta abarren ondoriozko datu-kalteen, -galeren edo -hondatzeen gaineko erantzukizunik.

Ekipamenduak behar bezala erabiliko dira.

Internet-zerbitzuaren ordutegia liburutegia itxi baino 15 minutu lehenago amaituko da.

Wi-Fi teknologia duten eremuetan, liburutegiko erabiltzaileak nor bere ordenagailuarekin sartu ahalko dira Interneten. Saioek ez dute denbora mugarik izanen, hasiera batean. Antzematen diren arazo edo premien arabera, liburutegiak iraupena mugatzen ahalko du, ahalik eta herritar gehienek zerbitzua baldintzarik hoberenetan erabiltzea izan dezaten.

Haurrendako Internet-zerbitzua: liburutegian Interneti konektatutako ordenagailurik bada haurrendako, 14 urtetik beheetikoek baizik ezin izanen dituzte erabili. Interneten ezaugarriak eta haren bidez eskura daitezkeen edukien aniztasuna direla-eta, seme-alabek beren gurasoen baimena beharko dute halako kontsultak egiteko. Liburutegiaren gomendioa da adingabearen ardura duen pertsona helduak haurrari kontsulta egiten laguntzea.

4.6. ERREPROGRAFIA ZERBITZUA

Dokumentuen kopiak egitean, Nafarroako Liburutegi Publikoen Sistemak jabetza intelektualari buruzko indarreko legeria beteko du.

Zerbitzu hori ematen duten liburutegietan, haietan den bibliografia-funtsa baizik ezin izanen da fotokopiatu.

Zenbaitetan, berariazko funtsari dagozkion dokumentuak kopiatzeko eskaeretan murrizketak izan daitezke, irizpide hauek, besteak beste, aintzat hartuta: jatorrizko euskarriaren antzintasuna, kalitatea eta egoera; formatu edo manipulazio zaila.

Zerbitzu hori erabiltzeko, indarreko tarifak ordaindu beharko dira.

4.7. BESTE ZERBITZU BATZUK

4.7.1. Kultur jarduerak

Liburutegiak gauzatzen dituen jarduerak doakoak dira erabiltzaileentzat; ordaindu behar izanez gero, halaxe iragarriko da jarduera zehatza sustatzeko kartel eta eskuorrietan. Prezio publikoak ezarriko zaizkie jarduera hauei: jarduera bereziei, interes mugatua dutenei edo autofinantzatu beharrekoiei.

Liburutegiak antolatzen dituen jardueretan herritar guztiek hartzen ahalko dute parte. Edukiera-arrazoiak direla-eta, edo parte-hartzaile zehatzei zuzentzen zaizkien jardueretan, lehentasunak eta murrizketak ezarriko dira.

Haurrentzako jardueretan, umeei haietaz arduratuko den heldu batekin edo 14 urtez goitiko pertsona batekin agertu beharko dute. Jarduera oztopatzen dutenek aretotik alde egin beharko dute, bai eta beraiekin doazen haurrek ere.

Jarduerak beste zerbitzu batean eraginik badu, erabiltzaileei horren berri emanen zaie, gutxienez ere 2 egun baliadun lehenago, eta honako hauek azalduko: arrazoia; zein egunetan eta ordutan egingen den; ukitutako zerbitzuak zer murrizketa izanen duen, edo hura eten egingen ote den.

4.7.2. Irakurleen kluba

Irakurleen klubaren definizioa

Irakurleen klub batean pertsona batzuk elkartzeko dira alde aurretik hautatzen dituzten liburuak irakurtzeko, eta, irakurri eta gero, haietaz hitz egin, iritziak trukatu eta liburuaren eta literaturaren gaineko interes eta ezagupenak handitzeko.

Txartelaren eskaera

Zerbitzuaren erabiltzaile izateko, irakurleen klubak Nafarroako Liburutegi Publikoen Sistemak emandako txartela izan beharko du.

Eskabidean datu hauek adierazi behar dira:

- Klubaren, edo liburutegi edo entitate eskatzailearen izena.
- Klubaren, eta zein liburutegiren edo entitatearen mende dagoen, haien helbide-datuak.
- Klubaren arduradunaren datuak.
- Eskabidea dagokion liburutegiko edo entitateko arduradunak sinatu beharko du.

Irakurleen klubetako dokumentu-sortak honako hauek mailegatzeko ahaliko dituzte, betiere Nafarroako Liburutegi Publikoen Sistemak emandako txartelaren jabe badira: liburutegi publikoak, institutuak, ikastetxeak, bestelako irakaskuntza-zentroak, bizilagunen elkarteak, erakunde publiko edo pribatuak, eta bestelako entitate eta elkarteak.

Bibliografia-sorten titulartasuna

Liburutegi Zerbitzuarenak izaten ahaliko dira edo, salbuespen gisa, liburutegi publikoenak beraienak. Irakurleen Klubeko kideek beren jabetzako aleak erabiltzen ahaliko dituzte, nahi izatera.

Bibliografia-funtseko ale guztiek Mailegu Zerbitzuaren zigilu bera izanen dute: Irakurleen Klubak. Nafarroako Liburutegi Publikoak. Edo, bestela, dagokion liburutegiarena.

Liburutegi Zerbitzuak Nafarroako Liburutegi Publikoen Sistemaren irakurleen klubetarako bibliografia-funtsak eratzeko baliabide ekonomikoak sustatuko ditu, eta jarduera osagarrien programazioan hartuko du parte, kasuan kasuko liburutegi publikoekin elkarlanean.

Liburutegi Zerbitzuak irakurleen klubei dauden bibliografia-funtsen berri emanen die, bai eta horiek zenbat alez osatzen diren eta eskura ote dauden adierazi ere, eta mailegu-zerbitzua kudeatuko du.



Aleen eskaerak

Sorta bakoitza izenburu bereko 20 alek osatuko dute gutxienez. Mailegu arruntaren bidez, txartel bakoitzeko hiru sorta eskatzen ahalko dira. Eskaera hiru prozedura hauen bidez egiten ahalko da:

- Helbide elektronikoko honen bidez: clubes.lectura@navarra.es. Sorten eskaera zuzenean eginen da edo jarraibide hauei erantsitako inprimakia atxikiz.
- Posta arruntaren bidez: Nafarroako Liburutegia eta Zinemateka, Antonio Pérez Goyena pasealekua, 3. 31008 Iruña; gutun-azalean hauxe idatziko da: "Irakurleen Klubeko Mailegua", Liburutegien Sarearen Atala.
- Telefonoz: 848 428982 eta 848 426442. Faxez: 848 427788.

Irakurleen klubek sorta-egutegi bat prestatuko dute hiru hilean behin eta Liburutegien Sarearen Atalera igorriko dute.

Mailegatzeko epe eta baldintzak

Sortak mailegatzeko epea bi hilabetekoa da. Erreserbatzen eta epea berritzen ahalko da, beste klub baterako erreserbatuta ez badaude. Nafarroako Irakurleen Klubeko txartela duten pertsona eta erakundeentzat da mailegua.

Igorketa eta itzulketa moduak

Mailegu-eskaerak haien erabilerarako adierazitako data baino 15 egun baliodun lehenago eginen dira gutxienez.

Liburutegien Zerbitzuak edo, kasua bada, liburutegi publiko hornitzaileak, behar bezala betetako eskabidea jaso eta gehienez ere hurrengo 10 egun baliodunean bidaliko du sorta.

Sortak behar bezala enbalatuta igorriko dira, ez hondatzeko. Kutxan, helbide hau adieraziko da:

Nafarroako Liburutegia eta Zinemateka
Antonio Pérez Goyena pasealekua, 3
"Irakurleen Klubeko Mailegua" Liburutegien Atala
31008 Iruña

Irakurleen klubak maileguan sorta bat izan eta beste bat eskatzen badu, bigarren sorta jaso eta gehienez ere astebeteko epean itzuliko du aurrekoa.

Igorketa- eta itzulketa-kostuak

Liburutegien Zerbitzuak bere gain hartuko ditu Nafarroako Irakurleen Klubetako funtseko sortak igorri eta itzultzeko gastuak, Nafarroako Liburutegi Publikoen Sistemaren mendeko liburutegietako klubek maileguan eskatutakoei dagozkienak.

Dena dela, liburutegi hornitzailea Nafarroako Liburutegi Publikoen Sistemaren mende ez badago, Sistemaren mendeko liburutegi eskatzaileak ordaindu beharko ditu igorketa- eta itzulketa-gastuak.

Nafarroako Liburutegi Publikoen Sistemaren mende ez dauden liburutegi edo entitateek Sistemaren irakurleen klubetako funtsen maileguari lotutako igorketa- eta itzulketa-gastu guztiak ordaindu beharko dituzte.



Betebeharrak

- Obrak adierazitako epeen barne itzultzea.
- Mailegatutako sortaren osotasuna mantentzea. Aleren bat larriki kaltetuz gero, erabilera desgokiaren ondorioz, edo galduz gero, liburutegi mailegu-hartzaileak ahal bezain laster berrituko du, edo dagokion zenbatekoa ordainduko.
- Jarraibide hauek onartzea.
- Txartelaren datuak eguneratzea, aldaketarik egonez gero.
- Informazio zehatza ematea eskatzen duenari.

Zehapenak

Epeak edo arauak behin eta berriz ez-betetzeak bibliografia-funtsen mailegu-zerbitzua aldi baterako edo betiko etetea ekartzen ahalko du.

Erabakia Irakurleen Kluben Batzordeak hartuko du.

4.7.3. Erabiltzaileentzako prestakuntza

Nahi duten guztiei emanen zaie eskura dauden baliabide guztiak behar bezala erabili eta ahalik eta etekinik handiena ateratzeko prestakuntza eta laguntza.

Taldeentzako prestakuntzarako, hitzordua eskatuko da lehenik. Taldeek adostutako orduan azaldu beharko dute.

Eskola-taldeek helduren batekin agertu beharko dute. Helduek liburutegiraino gidatuko dituzte, eta ordenan egoteaz arduratuko, liburutegiaren erabilera libreari buruzko bisitan.

5. JARRAIBIDEAK ONARTZEA

Jarraibideak jendaurrean paratuko dira, erabiltzaileek jakin ditzaten, eta haien eskura egonen dira liburutegian.

Liburutegia erabiltzeak jarraibide hauek onartzea dakar berarekin. Zerbitzuen ordena eta erabilera egokia bermatzeko, jarraibideotako xedapenen bat betetzen ez duten erabiltzaileek zerbitzuak aldi batez erabiltzeko eskubidea galtzen ahalko dute eta/edo zentrotik kanporatzen ahalko dituzte.

Bestalde, jarraibide hauek interpretatzean sortzen diren zalantzak liburutegiko langileek ebatziko dituzte, Liburutegien Zerbitzuak oniritzia emanda.